# Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

## 2011rako plangintza proposamena

0. Aurkibidea 1

1. Bizi baldintza materialak
1.1 Etxebiz-Hitza plataforma 3
1.2 Gazteria eta enplegua IV. jardunaldiak 5
1.3 Gazteak eta alternatiba ekonomikoak. Ahotik at! 6
1.4 Apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko eguna 7
1.5 Lan istripuen protokoloa 8
1.6 Oinarrizko errenta (sarea) 8
1.7 Gazteak eta nekazaritza subiranotasuna 9
1.8 Gazteak, hirigintza eta parte hartzea 11
1.9 Gizarte eragile eta ekimenekin elkarlana 12
1.10 Interlokuzio politikoa / erakundeekiko elkarlana 12
1.11 Posizionamendu politikoak 13
1.12 Barne koordinazioa 14

2. Hezkuntza
2.1 Hezkuntza ez formala
2.1.1 Astialdi Foroaren kordinazioa 15
2.1.2 Astialdi taldeen udako ekintzen eskuorria 16
2.1.3 Astialdi Foroko webgunea 17
2.1.4 Instituzioekin elkarlana 18
2.1.5 Beste eragileekin harremana 19
2.2 Hezkuntza formala
2.2.1 Unibertsitateko elkartegintza 21
2.3 Barne lana
2.3.1 Egunerokotasunean 22

3. Justizia eta berdintasunerako baldintzak
3.1 Kulturartekotasuna
3.1.1 EGKren ahotsa 23
3.1.2 Kulturartekotasun jardunaldiak 25
3.1.3 Kulturartekotasuna eta elkartegintza 26
3.2 Generoa eta berdintasuna
3.2.1 Tratu onen aldeko programa eta jardunaldiak 28
3.2.2 Berdintasuna elkartegintzaren barruan 29
3.3 Bakea: gatazken kudeaketa eta biolentzia eza 31

## 4. Komunikazioa


4.1 Berriz berri 32
4.2 Durangoko azoka 34
4.3 Elkarteentzat komunikazio erremedioak 35
4.4 Ahotik At 9. alea 37
4.5 Gaztepress 38
4.6 EGK digitala 40
4.7 Gazte Borraste 42
4.8 Kazetariekin topaketak 44
4.9 Web orria eta sare sozialak 45
4.10 Komunikazio kanpainak 47
4.11 Kolaborazioen kudeaketa 48
4.12 Paz con Dignidad elkartearekin elkarlana 49


## 5. Lurraldetasuna


5.1 Gazteria politiken EAEko mapa: Gaztelink 52
5.2 EGKko elkarteekiko lana 55
5.3 EAEko elkarte sareak, eragileak 58
5.4 EAEko administrazioetako gazteria sailekin lana 61
5.5 Lurralderantz 63
5.6 Egunerokotasuna 64


## 6. Presidentzia


6.1 Batzorde Iraunkorra 66
6.2 Batzorde Teknikoa 68
6.3 Batzorde ekonomikoa 69
6.4 Ohiko Asanblada 70
6.4 Instituzioekiko lana: Jaurlaritza 72
6.6 Instituzioekiko lana: Aldundiak 73
6.7 Instituzioekiko lana: Legebiltzarra 74
6.8 Erakunde garapena 76
6.9 Ebaluazioa eta plangintza 77
6.10 Irudi publikoa 78
6.11 Elkarteekin bilerak 79


## 7. EGK-ko 2011rako aurrekontua


7.1 EGK-ko 2011rako aurrekontuaren inguruko azalpenak 82
7.2 EGK-ko 2011rako aurrekontua 84


## ERANSKINAK


I. Eranskina: AF eskolak, federazioak eta taldeak 87
II. Eranskina: EHU-ko elkarteak 90
III. Eranskina: EGK-ko elkarteak 92

# 1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

## 1.1 Etxebiz-Hitza plataforma

### deskribapena

Gaur egun etxebizitza eskubidearen defentsaren inguruan eragile ezberdinak batzen dituen gune bakarrenetarikoa izanik premiazkoa litzateke hau mantentzea. Horregatik, aurten ere, aurreko urteetan abian jarritako espazio honi jarraipena emateko, ekimen ezberdinak sustatuko dira. Foroak bizi izandako norabide aldaketaren ondorioz (Administrazioarekiko harreman ofiziala eten egin zen gobernu aldaketa eman ostean), elkargunea birdefinitu egin zen, helburuak eta estrategiak egoera berriari moldatuz. Guzti honetan, EGK-ren papera funtsezkoa izango da, zenbait idazkaritza funtzio (aktak jasotzea, dinamizazioa, etab.) berriro ere gazte kontseiluak hartzea aurreikusten baita.

Honela, 2010ean onarturiko etxebizitza plan zuzentzailea (2013 artekoa) eta gaiarekiko gainontzeko prozesuak beste elkarteekin batera aztertu ahal izango dira, foroan aurretik garatutako dekalogoaren lanketa eta jendarteratzea jarraipenarekin batera, diskurtso eta proposamen bateratuak martxan jartzeko asmoz.

Hortaz gain, Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetzarekin harreman bilatuko da, aurrera eramango diren prozesuetan eta politiketan dekalogoaren edukiak bermatzeko.

### helburuak

- Etxebizitzaren eskubide subjetiboaren aldeko forotik berreskuratutako indarrekin, plataforma bezala jarraipena emateko idazkaritza ardura hartu.
- Eragile sozial eta sindikalekin batera, etxebizitzaren inguruko problematika landu eta kalera begirako ekimenak garatu.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

A. Plan zuzendari berriaren edukiak aztertu eta plataforma aktibatu.
B. Diskurtsoa azaleratu eta plataformaren proposamenak kaleratu. Administrazioarekiko interpelazioa bideratu.

| Hilabetea | Ekintza | |
|---|---|---|
| Urtarrila | A | |
| Otsaila | A | |
| Martxoa | A | B |
| Apirila | A | B |
| Maiatza | B | |
| Ekaina | B | |

### hartzaileak

- Plataformaren barruan: ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, Berri Otxoak, EDE Fundazioa, Elkartzen, Ezker Gogoa, Kepasakonlakasa, Caritas Bizkaia eta Gazteleku daude.
- Bestelako elkarteak: sindikatuak, etxebizitzaren inguruan lanean diharduten taldeak, gizarte bazterketaren kontrako elkarteak, gazte elkarteak, Unibertsitatea, etab.
- Erakunde politikoak.
- Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetza.
- Jendartea eta gazteak orokorrean.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea.
- Plataformaren parte hartzaileen kopurua.
- Lortutako atxikimendu kopurua.
- Proposamen eta diskurtsoen eragina (komunikabide eta jendartean).
- Administrazioarekin izandako bilera kopurua.

## 1.2 Gazteria eta enplegua IV. jardunaldiak

### deskribapena

Azken hiru urteetan bezalaxe, egitasmo hau, EGK osatzen duten elkarte ezberdinen elkarlanaren ondorioa da. Ekimena Azaroa aldera ospatuko diren enpleguaren inguruko eztabaida eta formakuntzarako jardunaldietan datza.

Hauen nolakotasun zehatzak (lekua, iraupena, gai zehatzak) oraindik zehazteke dauden arren, 3.edizio honen arrazoiak berdinak izaten jarraitzen dute:

- Gazte enplegu politiken inguruko formakuntzan gabezia nabarmena dago, bai pertsonal teknikoaren zein gazte eragileen partetik.
- Gaiaren inguruko hausnarketarako eta eztabaidarako espazio falta nabarmena da.
- Gazte politiketan inplikatuta dauden eragile ezberdinen arteko harremanean sakontzeko beharra ikusten da.

Honetaz gain, aurreko edizioan landutako gaien inguruko ondorio zein proposamenak komunikazio arduradunarekin batera hurrengo Ahotik at! Aldizkarian publikatuko dira, gaiarekiko bestelako ikuspuntu eta proiektuak azalduko direlarik.

### helburuak

- EGK barruko enplegu lan taldeari jarraipena eman eta elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enpleguaren inguruko politiken inguruan hausnarketa, formakuntza ahalbidetu eta alternatibak sortzeko aukera eman.
- Ihardunaldien kalitatea hobetu, EGK barneko eginbide hau indartu.
- Eragile ezberdinen arteko harremana sendotu.
- EGKren baitan material propioa garatu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Jardunaldien prestaketa: EGK barruko eragileekin batera osatutako lan-taldean (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak JOC,...) saioaren edukiak eta aspektu teknikoak zehaztu.
**B.** Finantziazioa bilatu eta hitzarmen bat lortu.
**C.** Komunikazio teknikariarekin batera eta lan taldearekin koordinatuz, jardunaldien zabalpenerako plangintza garatu.
**D.** Difusiorako materiala prestatu eta jardunaldien zabalpena egin.
**E.** Jardunaldiak ospatu.
**F.** Jardunaldien ondorioak laburbilduko dituen buletinaren erredakzioa.
**G.** Komunikazio teknikariarekin batera buletina argitaratu eta honen zabalpena egin.

| Hilabetea | Ekintzak | |
|---|---|---|
| Abuztua | A | |
| Iraila | B | C |
| Urria | D | |
| Azaroa | E | F |
| Abendua | G | |

## hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK barneko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte taldeak.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Udaletxe, Foru erakunde eta gobernuko enplegu eta gazte arloetako arduradun politikoak.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lan taldearen bilera kopurua.
- Lan taldean integratutako elkarte berrien kopurua.
- Jardunaldiek jasotako ebaluazio emaitza.
- Parte hartzaileen kopurua.
- Parte hartzaileen aniztasuna (sexua, eremua, arloa, lurraldea).
- Jardunaldietan landutako edukien balorazioa.
- Jardunaldien eztabaidan ateratako ondorioen kalitatea.
- Ondorio txostenen kopurua. Ondorio txostenek izandako oihartzuna.

## 1.3 Gazteak eta alternatiba ekonomikoak. Ahotik at!

### deskribapena

Proiektu hau Gazteria, Enplegua eta Ekonomia Solidarioaren inguruko 3. jardunaldien ondorioak behar bezala garatu eta zabaldu ahal izateko burutuko da. Komunikazio arloan urtero egin den bezala, zenbait gaien inguruan monografikoak egiten dira Ahotik at! izeneko edizioan. Arloen arteko elkarlanarekin burutuko da beraz, Komunikazio teknikariarekin eta Bizi baldintza materialeko teknikariarekin besteak beste.

### helburuak

- Ekonomia solidarioaren edota alternatiba ekonomikoen gainean gazteen ikuspuntua zein den azaleratu eta alternatiba ezberdinak islatu nahi da.
- Proiektuotan gazteriaren parte hartzea eta aktibazioa zein den azaleratu.
- Ekonomia alternatibo edo solidarioen inguruan informazioa eskaini, zertan datzan, kokapena, eta hauen arteko loturak ahalbidetu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

A. Gaiaren inguruko informazioa bildu eta edizioaren estruktura zehaztu.
B. Esperientzia ezberdinen inguruko elkarrizketak lotu eta informazioaren mamia atera.
C. Edizioaren zirriborroa egin, ekarpenak bildu eta testuaren azken bertsioa adostu.
D. Azken txostenaren edizioa, maketazioa eta difusioa egin.

| Hilabetea | Ekintzak |
|---|---|
| Otsaila | A |
| Martxoa | B |
| Apirila | C |
| Maiatza | D |

### hartzaileak

- EGK barruko enplegu lantaldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK barneko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte taldeak.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Jendartea oro har eta gazteria bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK barruko arloen eta elkarteen arteko elkarlana.
- Elkarrizketetako esperientzia-parte hartzaile kopurua.
- Jasotako informazioaren kantitate-kalitatea.
- Egindako difusioa.

## 1.4 Apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna

### deskribapena

Lan osasunaren nazioarteko egunaren testuinguruan, gazte prekarietatearen inguruko posizionamendu publikoa egiteko asmoa dago urtero bezala. Horrela, testuinguruaren irakurketa orokorraz gain EGK-ko elkarteekin batera adostutako minimoak bilduko dituen dokumentua zabalduko da (minimoen taula), kanpo eragileen babesa bilatzeko eta honen zabalpen publikoa egiteko.

Ostean, EGK elkarteek eta kanpo eragileek nahi izanez gero, ekimen publiko bat egin daiteke.

### helburuak

- EGK-ren diskurtsoa - posizionamendua azaldu lan istripu eta prekarizazioaren inguruan.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gainontzeko eragileekin dekalogoaren minimoak jendarteratu eta eragile gehiago txertatu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

A. Dokumentuaren erredakzioa eta garapena.
B. Dokumentua elkarteekin landu eta babesa bilatu.
C. EGK-ren hedabide propioen bitarrez (webgunea, Berriz Berri eta posta elektronikoa) txostena ezagutarazi.
D. Minimoen taula eta EGK-ren diskurtsoa komunikabideen bidez zabaldu.
E. Ekimen publikoa egin.

| Hilabetea | Ekintzak | | |
|---|---|---|---|
| Otsaila | A | | |
| Martxoa | A | B | |
| Apirila | C | D | E |

### hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Dokumentuak jasotako proposamenen egokitasuna.
- Dokumentua sinatutako elkarte kopurua.
- Medioetan izandako oihartzuna.

## 1.5 Lan istripuen protokoloa

### deskribapena

Proiektu hau Presidentearekin eta Komunikazio Teknikariarekin batera garatuko da. Egitasmoa abian jarri zenetik bezala, Apirilaren 28an (Lan Istripuen Kontrako Nazioarteko Eguna) eta lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen denean adierazpen publiko bat egitean datza.

EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, prentsa ohar baten bitartez.

### helburuak

- EGK-k dituen hedabide propioen bidez EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

- Ekintza jarraitua izango da, urte guztian zehar garatuko dena.

### hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.

## 1.6 Oinarrizko errenta (sarea)

### deskribapena

2008an EAE mailan Oinarrizko Errentaren inguruan gizarte mailako eragile ezberdinekin batera (Ezker Gogoa, EHNE, ESK, Gazte Berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU) hasitako ibilbidearen ondorioz, eta 2009ko Simposiumaren antolaketan jaiotako elkarlanaren ondorioz, lan talde egonkorrago bat osatzea izan da helburua aurreko urtean. Hala ere, EGK-ren barneko erreleboak eta gainontzeko eragileen gainkarga dela eta ezin izan da bete. Horrela, 2011an helburu hori berreskuratu eta betetzea ahalbidetu nahi da.

Zeregin nagusia taldearen dinamikatik sortuko diren egitasmoetan aktiboki aritzea izango da. Zehazteke dagoen arren, udaberria aldera mintegi ezberdinak antolatuko dira, eremu ezberdinetako eragileekin batera, oinarrizko errentaren ideia zabaldu eta gaur egun existitzen diren prestazioen azterketa egiteko asmoarekin.

### helburuak

- Sarea eta abiatutako lan dinamika finkatu. Berau aurrera eramateko beharrezkoak diren ardurak eta jarrerak hartu.
- Lan prozesuan zehar gizarte eragile gehiagorekin kontaktatu.
- Gaiaren inguruan formakuntza mintegiak burutu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza jarraitua izango da, lan taldearen plangintza propioa garatu arte zehaztu ezin dena. Udaberri partean dena den mintegiak burutzea aurrikusten da.

### hartzaileak

- Sarea bera: Ezker gogoa, EHNE, ESK, Gazte berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU.
- EGK barruko taldeak.
- Gazte eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Gure proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Sarearen funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea.
- Inplikatutako taldeen kopuru eta aniztasuna.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

## 1.7 Gazteak eta nekazaritza subiranotasuna

### deskribapena

2009. urtean erredaktatutako eta publikatutako Hizpideak IV argitalpena, gazte baserritarrek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia jendarteratu eta berau hobetzeko edo gainditzeko dauden aukerak ezagutzera eman zituen. Dokumentuan, nekazaritza eta landa eremua osatzen duten faktoreei so eginda, sektore honetako langile gazteen egoera aztertu zen, argitalpenaren difusioa 2010eko hasieran egin zelarik.

Aurten diru iturrien urritzea ikusirik, gai interesgarri honetan formatu bereko proiekturik ezingo da egin. Hala ere, gai honen inguruko informazioaren eskasia ikusirik, eta daukan garrantziaz ohartuta, era batera edo bestera jorratzea aurrikusten da. Nekazaritza subiranotasunaren inguruko kontzeptuan sakondu eta bertan gazteriaren parte hartzea aztertzeko asmoz hain zuzen ere.

## helburuak

- Nekazaritza eta subiranotasunaren inguruko kontzeptuen gaineko eztabaidan sakontzea.
- Formazio teoriko eta praktikoa bideratzea mintegi edo tailerren bitartez.
- Bestelako produkzio eta kontsumo ereduen zabaltzea.

## Ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Gaiaren inguruko aurrekariak aztertu (EGK-k burututako ekintza edota materialak,...) eta lehenengo ideiaren zirriborroa gauzatu.
**B.** Landa eremuan EGK barnean dauden elkarteekin (EHNE,...) batera, ideiari forma eman eta behin behineko proiektua idatzi, gazte baserritarrek burutzen dituzten proiektuen berri eman eta gaiaren inguruko formakuntza bideratzeko.
**C.** Formakuntza teoriko-praktikoan oinarritutako saioaren diseinua itxi eta difusioa ahalbidetu.
**D.** Saioen egikaritzea.
**E.** Ondorioen idaztea eta zabaltzea.

| Hilabetea | Ekintzak |
|---|---|
| Martxoa | A |
| Apirila | B |
| Maiatza | C |
| Ekaina | D |
| Uztaila | E |

## hartzaileak

- EGK barruko taldeak (batez ere lan eremuan aritzen direnak).
- Gazte talde eta eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren diskurtso eta inplikazioa.
- Barneratutako taldeen kopuru eta aniztasuna.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

## 1.8 Gazteak, hirigintza eta parte hartzea

### deskribapena

Gazteek abian jarritako ekimen eta proiektuak abiapuntutzat hartuta, hirigintza parte hartzailean oinarritutako esperientzia ezberdinak ezagutzera eman ziren 2010ean, gazteak, hirigintza eta parte hartzeari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatuz. Honela, 2009an D.O.T.-en irakurketa egiteko abian jarri zen lan taldearen inplikazioaz, espazio publikoaren eraldaketa parte hartzaile eta berritzaileak ahalbidetu dituzten proiektu ezberdinen inguruko hitzaldiak antolatuko dira.

Esan bezala hitzaldiek herri eta hirien biziberritzearen harira gazteek martxan jarritako esperientziak izango dituzte hizpide, eta horretarako EAEko zein kanpoko hizlariak ekartzea aurrikusten da. Hitzaldiak EGK-k biziberritzea, espazio publikoaren erabilera eta hirigintzaren gainean duen diskurtsoa zehazten laguntzeaz gain, eremu ezberdinetako gazteak harremanetan jartzea ahalbidetuko du, pil-pilean dagoen gai honen gainean eztabaidatzeko espazioa eskainiz.

### helburuak

- Planoetatik kalera topaketetan sortu eta garatutako diskurtsoaren sakontzea ahalbidetu, gazteon parte hartzea hiri eta herrien eraldatzean.
- Gazteek zein jendarte eragileek sortutako esperientzien ezagutaraztea.
- Gainontzeko eragileekiko harremana garatzea gai honen inguruan.
- DOT lantaldearen dinamikan sakondu.

### Ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Hitzaldien prestaketa: EGK barneko eragileekin batera osatutako lan-taldean saioaren edukiak eta aspektu teknikoak zehaztu.
**B.** Finantziazioa bilatu eta hitzarmen bat lortu.
**C.** Jardunaldien difusioa eta zabalpena, EGK-ren bitarteko propioen bidez eta hedabideen bitartez.
**D.** Hitzaldiak ospatu.
**E.** Ondorioak atera.

| Hilabetea | Ekintzak |
|---|---|
| Otsaila | A |
| Martxoa | B |
| Apirila | C |
| Maiatza | D |
| Ekaina | E |

### hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren diskurtso eta inplikazioa.
- Barneratutako taldeen kopuru eta aniztasuna.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

## 1.9 Gizarte eragile eta ekimenekin elkarlana

### deskribapena

Jendarte eragileekiko elkarlana da EGK-k burutzen duen beste lan garrantzitsuenetariko bat. Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) plataforma eta kolektiboen arteko dinamiketan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa azaleratu, ideiak eta ekimenak elkartrukatzea hain zuzen ere.

### helburuak

- Bileretan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa eta gazte ikuspegia bermatu.
- Beste eragilekin harremana ahalbidetu eta egonkortu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EGK kanpoko gazte eragileak.
- Gai sozialak jorratzen dituzten jendarte eragileak.
- Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren eta gazte errealitatearen diskurtsoaren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Eragileekiko harremanaren sendotzea eta egonkortzea.

## 1.10 Interlokuzio politikoa / erakundeekiko elkarlana

### deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) instituzioekiko eta beste lurraldeetako gazte kontseiluekin harremana izan eta mantentzea.

### helburuak

- Instituzio edo administrazioarekiko gai konkretuetan harremana izan eta interlokuzioa ahalbidetu.
- CJE rekiko harremana izan, informazioa partekatu.
- Beste kontseiluekin harreman puntualak mantendu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EAEko administrazio publikoa.
- CJE.
- Bestelako Gazte Kontseiluak.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Interlokuzioak emandako fruituak.

## 1.11 Posizionamendu politikoak

### deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) gertaera edo/eta testuinguruen aurrean EGKren diskurtso, balorazio eta iritzia azaleratzean oinarritzen da.

### helburuak

- EGKren iritzi ea diskurtsoa azaleratu gai ezberdinen inguruan.
- Momentuko gertaera eta errealitateari aurre hartu EGKren posizionamendua azaleratuz.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EGK barneko elkarteak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Jendarte eragileetan izandako inpaktua.
- Jendartean oro har eta gazterian lortutako oihartzuna.

## 1.12 Barne koordinazioa

### deskribapena

EGK barruko egitura eta funtzionamendua kontutan hartuta, barne koordinazioa mantentzea ezinbesteko lana da.

### helburuak

- Bulegoko gestioak burutu.
- Jarraipen lana burutu hilabeteka.
- Memoria eta plangintzak zehaztu urtero.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bileren kopurua-kalitatea.
- Arloen arteko komunikazioa eta koordinazio maila.
- EGKren funtzionaltasuna.

# 2. HEZKUNTZA

## 2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

### 2.1.1 Astialdi Foroaren koordinazioa

#### deskribapena

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazioa eta bitartekaritza, ekimenen oinarrizko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

#### helburuak

**Orokorrak:**

- Astialdi Foroko koordinazioa ebaluatzea eta hobetzea
- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea

**Zehatzak:**

- Esperientziak trukatu eta lan komuna egin

#### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Bilerak: bileretan Astialdi Foroko kideek parte hartuko dute, deialdiak koordinatzaileak eta batzorde iraunkorreko arduradunak prestatuko dituzte, bidalketa eta akta jasotzea koordinatzaileak egingo du.

**B)** Bilera: 09-10 ikasturtearen ebaluazioa egingo da eta 10-11 ikasturteko hasiera bileraren programazioa zehaztuko da.

| hilabetea | Ekintzak | |
|---|---|---|
| urtarrila | A | |
| otsaila | A | |
| martxoa | A | |
| apirila | A | |
| maiatza | A | |
| ekaina | A | B |
| uztaila | | |
| abuztua | | |
| iraila | A | |
| urria | A | |
| azaroa | A | |
| abendua | A | |

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak (Ikus I. eranskina).

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

Foroaren lana ebaluatzeko honako irizpideak kontutan hartuko dira:

- Egindako bilera kopurua
- Bilera guztietan Astialdi Foroko erakundeen %60ak gutxienez parte hartzea
- Aurrera eramandako ekintzak

## 2.1.2 Astialdi taldeek antolatzen dituzten udako ekintzen eskuorria

**deskribapena**

Eskuorri honetan lurraldeko astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jasotzen da. Lurraldeko koordinatzaileak eta Hezkuntza arloko kontseiluko teknikariak, biek koordinaturik, kanpaleku eta udalekuen inguruko datuak jasotzen dituzte (antolatzen duen elkartearen izena, telefono zenbakia, kanpamentu edo udalekuaren kokalekua, datak....). Uda aurretik argitaratu eta zabaltzen da. Aurten sentsibilizazio kanpaina garatuko da.

**helburuak**

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.
- Taldeek egiten duten lana hedatzea.

**ekintzak eta epeak (kronograma)**

**A)** Galdetegia eta gutunen bidalketa: datuak jasotzeko galdetegi bat diseinatuko da (ekintza mota, datak, adinak, lekua, hezkuntza, talde antolatzailea, harremanetarako datuak), behin galdetegia diseinatuta astialdi taldeei posta elektronikoz bidaliko zaie. Bi bidalketa egingo dira, lehena aurkezpen moduan eta bigarrena galdetegia bete behar dela gogoratzeko.

**B)** Diseinuaren prestaketa eta argitarapena: diseinua Astialdi Foroan landuko da gero Erreka enpresarekin borobiltzeko. Behin diseinua eginda inprentara bidaliko da.

**C)** Prentsaurrekoa: maiatzean eskuorria plazaratuko da horretarako EGK-ko egoitzan prentsaurrekoa egingo da.

**D)** Hedapena: astialdi taldeei, gazte informazio bulegoei eta eskolei bidaliko zaie eskuorria.

| hilabetea | ekintzak | | |
|---|---|---|---|
| urtarrila | | | |
| otsaila | | | |
| martxoa | A | | |
| apirila | A | B | |
| maiatza | A | C | D |
| ekaina | | | |
| uztaila | | | |
| abuztua | | | |
| Iraila | | | |
| Urria | | | |
| azaroa | | | |
| abendua | | | |

### hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Jendartea
- Gazte Informazio Bulegoak
- Gurasoak eta familiak
- Administrazioak

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hedabideen erantzuna
- Bidalitako ale kopurua

## 2.1.3 Astialdi Foroko webgunea

### deskribapena

Astialdi Foroko webgunea hamabost egunean behin eguneratzen da. Astialdiari buruzko albisteak, taldeei buruzko informazioa eta Astialdi Foroari buruzko deialdiak eta berriak argitaratzen dira, haien artean udako ekintzen eskuorria.

### helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | A |
| otsaila | A |
| martxoa | A |
| apirila | A |
| maiatza | A |
| ekaina | A |
| uztaila | |
| abuztua | |
| iraila | A |
| urria | A |
| azaroa | A |
| abendua | A |

### hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Gizartea
- Astialdi eragileak

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Argitaratutako eduki kopurua.
- Webguneari egindako bisita kopurua.

## 2.1.4 Instituzioekin elkarlana

### deskribapena

Astialdi hezitzaileak gaur egun betetzen duen gizarte-funtzioa dela eta, hau zaintzeko dagoen interesarengatik eta gizarteak espazio ez formalean hezkuntza-lanak egiten jarraitzeko daukan beharrarengatik, derrigorrezkoa da gizarte eragileen eta instituzio publikoen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak) arteko lankidetzan aritzea. Hezkuntza ez formalaren eskaintza garatzeko ezinbesteko baldintza da bi alderdi horiek elkar ulertzea eta lankidetzan aritzea, eta bakoitzak astialdia esparruan bere zereginak izan eta ekarpenak egitea.

### helburuak

- Astialdi hezitzailea indartu eta sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoekin harremanak sendotzea.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzeko eta duintasuna emateko Instituzioekin batera lankidetzan aritu behar da, Astialdi Foroaren esperientzia oinarri hartuta elkarlana bultzatuaz.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | A |
| otsaila | A |
| martxoa | A |
| apirila | A |
| maiatza | A |
| ekaina | A |
| uztaila | A |
| abuztua | |
| iraila | A |
| urria | A |
| azaroa | A |
| abendua | A |

### hartzaileak

- Erakunde publikoak
- Astialdi eragileak
- Astialdi Foroko eragileak
- Jendartea

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egindako bilera kopurua
- Zenbat instituzioekin bildu garen
- Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak

## 2.1.5 Beste eragileekin harremana

### deskribapena

Lankidetza zabalaren alde gaude. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi dugu: astialdi taldeak eta sareak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jarduera-egitarauak dauzkaten ikastetxeak, gurasoak (elkarteen bidez), batzordeak, elkarteak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

## helburuak

- Elkartegintza eta sare lana bultzatu eta indartzea.
- Astialdian esku-hartzen duten eragileetatik kalitatezko eta egungo beharrizanetara egokitutako eskaintza sustatzea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da, deialdien arabera.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | A |
| otsaila | A |
| martxoa | A |
| apirila | A |
| maiatza | A |
| ekaina | A |
| uztaila | A |
| abuztua | |
| iraila | A |
| urria | A |
| azaroa | A |
| abendua | A |

## hartzaileak

- Astialdi Foroko eragileak
- Beste eragileak

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egindako bilera kopurua
- Zenbat eragileekin bildu garen
- Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak

## 2.2 HEZKUNTZA FORMALA

### 2.2.1 Unibertsitateko elkartegintza

#### deskribapena

EHUko elkarteak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik harremana sortzea eta garatzea lortu nahi da eta horretarako EGK-k dituen lanerako espazioak eskaini, elkar ezagutzan sakondu eta elkarlanerako aukerak indartu nahi dira, kontseiluak beste gazte elkarteekiko dituen betebeharrak eta funtzioak beraiekin ere betetzekotan.

#### helburuak

- Ikasle elkartegintza indartu eta parte hartzea bultzatu.
- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei eskatzea

#### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

| hilabetea | Ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | a |
| otsaila | a |
| martxoa | a |
| apirila | a |
| maiatza | a |
| ekaina | a |
| uztaila | a |
| abuztua | |
| iraila | a |
| urria | a |
| azaroa | a |
| abendua | a |

#### hartzaileak

- EHUko Ikasle elkarteak. **(Ikusi II.eranskina)**

#### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egindako bilera kopurua
- Zenbat eragile bildu diren
- Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak

## 2.3 BARNE LANA

### 2.3.1 Egunerokotasunean

#### deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte teknikariek egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

#### helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

#### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | A |
| otsaila | A |
| martxoa | A |
| apirila | A |
| maiatza | A |
| ekaina | A |
| uztaila | A |
| abuztua | |
| iraila | A |
| urria | A |
| azaroa | A |
| abendua | A |

#### hartzaileak

- Lan talde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

#### jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

- Jasotako proposamenak eta hobekuntzak.

# 3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

## 3.1 KULTURARTEKOTASUNA

### 3.1.1. Kulturartekotasunaren inguruan EGKren ahotsa zehaztu

**deskribapena**

Egitasmo honen bitartez, azken urteotan EGKren baitan burutzen ari den hausnarketari jarraipena eman nahi zaio. Izan ere, 2007. urteko Asanblada Orokorrean onartutako Dekalogoa oinarri harturik alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak jorratu nahi dira EGKren ahotsa zehazteko eta baita dokumentu hau eguneratu ere.

Horretarako, 2010ean landutako dokumentuak zein kulturartekotasunaren inguruko jardunaldietan landutako gaiak eta hauetatik jasotako ekarpena eztabaidatuko dira EGKren baitan sortzen ari den lan talde bati esker. Lan talde hau, alor honetan jarduten duten (zuzenean edo zeharka) EGKko elkarte guztiei irekita egongo da eta hilean behingo aldirokotasuna izatea aurreikusten da. Hala ere, lan taldeak bere dinamika propioa izatea nahi da, ondorioz aldaketei bidea zabalik utziko zaielarik.

Lan talde honen bitartez EGKko elkarteei alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak kontuan hartzen lagunduko die, beren marko teorikoa osatu edo garatu dezaten eta egunerokotasunekoan balia dezaten. Bestalde, alor teorikoa eta alor praktikoa uztartzen saiatuko da, tokian tokiko errealitateetara teoria ezberdinak praktikara txertatuz.

Horretarako, 2010. urtean egindako bideari jarraiki, kanpo eragileen ahotsa kontuan hartuko da. Izan ere, alor honetan dagoen aniztasuna eta ikuspegi ezberdinak kontuan hartzeko egin diren bilerak oso positiboki baloratu dira. Beraz, alde batetik alor *akademiko eta profesionala* lantzen duten eragileekin biltzen jarraituko da eta bestetik aniztasuna lantzen duten *eragileekin eta etorkinen elkarteekin*. Izan ere, errealitatea zuzenean ezagutzeaz gain, elkar ezagutza bultzatzen da etorkizunera begirako lankidetzak.

Marko teorikoa egituratzeko alor hauek izango dira oinarri:

- Politikoa: herritartasunaren aitortza (subjektu politiko gisa), eskubide eta betebehar oroz (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, mugikortasun askea eta generoa).
- Psikosoziala: jendarteko kide izatea alor guztietan, parte hartzea eta ikustarazpena oinarritzat hartuz.
- Kulturala: kultura ikuspegi zabal batetik, euskal kultura eta aniztasun kulturalaren arteko oreka bilduz.
- Bizikidetza: Jendarteko komunitateen arteko bizikidetzan sakonduz.

Beraz, egitasmo honek bi ardatz izango ditu, batetik eragile ezberdinen errealitatea eta ikuspegi ezberdinak ezagutzea eta bestetik, EGK-ko lan taldearen bitartez, alor honetan EGK-ren ahotsa zehaztea.

## helburuak

**Orokorra:**

- Kulturartekotasunaren inguruan EGKren ahotsa zehaztea

**Zehatzak:**

- Gazteengan kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatzea
- EGKko elkarteei hausnarketa eta eztabaida zabaltzea.
- EGKren ahotsa jendarteratzeko zutabeak jartzea, marko teorikoa landuz eta garatuz.
- Elkarte, erakunde eta EGKren arteko harremana eta lankidetza sustatzea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.-** Lan taldea osatu.

**B.-** Dokumentuak eta oinarriak landu.

**C.-** Elkarte eta eragileekin bildu.

**D.-** Lan taldean eztabaidatu eta adostasunetara iritsi.

**E.-** Barne dokumentuak osatu eta II.Jardunaldiak prestatu.

**F.-** Jardunaldiak burutu eta ebaluaketak. Aurrera begira zer?

| Hilabetea | *Ekintza* | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | | | | | |
| Otsaila | A | B | C | D | | |
| Martxoa | | B | C | D | | |
| Apirila | | B | C | D | | |
| Maiatza | | B | C | D | | |
| Ekaina | | B | C | D | | |
| Uztaila | | B | | D | E | |
| Abuztua | | B | | D | E | |
| Iraila | | B | | D | E | F |
| Urria | | B | | D | E | F |
| Azaroa | | | | | | F |
| Abendua | | | | | | F |

## hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Kultur elkarte eta eragileak
- Gazte eragileak

- Jendartea orokorrean

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

- Lan taldeak barne bilduko dituen elkarte kopurua
- Landuko diren dokumentu kopurua.
- Eragile eta elkarteekin burututako bilera kopurua eta edukia.
- Lan taldearen funtzionamenduari buruzko barne ebaluaketa.
- Barne dokumenturik osatuko den ala ez eta zein edukirekin.
- Sortutako lankidetza

## 3.1.2 Kulturartekotasunaren inguruko II. Jardunaldiak

**deskribapena**

Proiektu honen eskutik kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruan somatzen den egituraketa faltari aurre hartu nahi zaio. Gaia zabala, konplexua eta askotarikoa izanik, modu holistiko batean jorratu nahi da bigarren edizio honetan, ahalik eta ikuspegi gehien jorratuz. Izan ere, gai polikromatikoa da (inmigrazio eta kultura asko daude), polifonikoa (inmigrazioa eta aniztasun kulturalari buruzko iritziak anitzak), multifaktoreduna (kari ugari dituena) eta poliedrikoa (inmigrazioak eta aniztasun kulturalak aurpegi asko ditu). Gainera, euskara eta euskal kultura minorizatuta daudela aintzat hartu behar dira, gai konplexua ingurune konplexu batean txertatu behar delarik.

Jorratuko diren gaiak oraindik orain erabakitzeko badaude ere, hauek izan litezke I. Jardunaldiak kontutan hartuta: Identitate kulturala; kulturartekotasuna eta sexualitatea (generoa zeharka landuko da ekintza guztian); família eta baloreen transmisioa. Hauek denak euskal kulturaren oinarria eta testuingurua ahaztu gabe.

Proiektua diseinatu, garatu eta ebaluatzeko, “kulturartekotasunaren inguruan EGK-ren ahotsa zehaztu” proiektuan sortzen ari den lan taldea izango da oinarria. Honela, alor honetan hausnartzen dena eta egiten dena uztartzen saiatuko da.

**helburuak**

**Orokorra:**

- Kulturartekotasunaren eztabaida euskal gazteengan zabaldu.

**Zehatzak:**

- EGKren ahotsa ezagutarazi eta urteko lan-taldearen lana jaso.
- Aniztasuna bermatu ikuspegi holistiko batetik.
- Etorkinen eta gutxiengo etnikoen egoera ikustarazi eta jendarteratu.
- Identitate kulturalaren inguruan hausnartu.
- Ezagutza zabaldu eta errealitate ezberdinak ezagutu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Jardunaldiak diseinatu: edukiak, lekua, koordinazioa etab.

**B.** Zabalpena

**C.** Jardunaldiak burutu.

**D.** Ebaluaketa eta txosten bat eratu.

| Hilabetea | *Ekintza* | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Iraila | | A | B | | | |
| Urria | | | B | C | | |
| Azaroa | | | | | D | |
| Abendua | | | | | D | |

## hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Kultur elkarte eta eragileak
- Gazte eragileak
- Jendartea orokorrean

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Partaide kopurua
- Aniztasuna
- Parte hartzaileen iritzi eta aportazioak.

## 3.1.3. Kulturartekotasuna eta elkartegintza

## deskribapena

Kulturartekotasunaren alde lan egiten duten elkarteen zein egitasmoen jarraipena egingo da, bide batez, sare-lana indartzeko eta lankidetza sutatzeko; hauek EGK-ren zutabeetako bi direlarik.

Hauek artean, Harresiak Apurtuz, Kaeb Nai, Mujeres Del Mundo Unidas, Kolore Guztiak, Garaipen, Euskal Interkultura eta bidetik aterako diren beste eragileen zein elkarteen jarraipena egingo da.

Ekimen honekin, etorkin eta etorkinen aldeko elkarteekinharremana sortu eta finkatu nahi da, EGK-ren presentzia bermatzeaz gain.

Honen barnean ere, EAEko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan parte hartuko da, Herritarren Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazioa Lan Batzordean.

## helburuak

**Orokorra:**

- EGKk elkartegintza sustatzea modu aktibo batean.

**Zehatzak:**

- Elkarte ezberdinak ezagutzea eta lankidetza bultzatzea.
- Zenbait elkarteekin egindako egindako harremanak sendotu.
- EGK erakunde moduan jendarteratzea.
- Gazte ikuspegia elkartegintzan txertatzea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Jarraipena egin eta ekintzetan parte hartu.

**B.** Kaeb Nai-k antolatzen duen jaialdian parte hartu.

**C.** Bi hilean behin egindakoa ebaluatu.

| Hilabetea | Ekintza | | |
|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | | |
| Otsaila | A | B | C |
| Martxoa | A | B | |
| Apirila | A | B | C |
| Maiatza | A | | |
| Ekaina | A | | C |
| Uztaila | A | | |
| Abuztua | A | | C |
| Iraila | A | | |
| Urria | A | | C |
| Azaroa | A | | |
| Abendua | A | | C |

## hartzaileak

- Harresiak Apurtuz
- Harresiak Apurtuz-eko taldeak
- EGK
- EGK-ren kide diren elkarteak
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak
- Gazte eragileak
- Jendartea orohar

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintza eta kolaborazio kopurua
- Kontaktu berriak eta sare lana

## 3.2 GENEROA ETA BERDINTASUNA

### 3.2.1 Tratu onen aldeko programaren jarraipena eta jardunaldiak

#### deskribapena

"Tratu Onen Aldeko Programa" 2005eko martxoan hasi zen eta pertsona arteko harremanak hobetzeko praktika onak ikasteko tresna da. *Acciónenred* GKE-ak bultzatu du, eta 16 eta 20 urte arteko gazteentzako da.

Pertsona arteko indarkeriari, batez ere bikotekoari, aurre hartzeko bitartekoa izate nahi da;modu positiboan formulatua, harreman horiek zutabe gisa izan behar dituzten balioak oinarritzat hartuta: gizon-emakume arteko berdintasuna, autonomia pertsonala, nork bere bizimoduari buruz askatasunez erabakitzea baldintzatzaile sexistarik gabe, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea, erantzukizuna, errespetua…

Balio horiek onartzeak esan nahi du kontzientzia handiagoa izatea indarkeriazko harreman ereduak bultzatzen dituzten baldintza sozialei buruz eta geure portaera zehazteko dugun gaitasunari buruz ere bai. Programa honen ustez, hausnarketa kontziente hau indarkeriaren aurkako antidoto ona izan liteke. Aldiz, programa hau ez da "emakumeen kontua" edo "sexuen arteko borroka"; alderantziz, ahaleginak egiten dira frogatzeko emakume eta *gizakumeok* elkarrekin egindako apustuarekin soilik egingo duela aurrera.

#### helburuak

**Orokorra:**

- Gazteen arteko harremanak hobetzeko praktiken inguruan hausnartu.

**Zehatzak:**

- Programa hau praktikan jartzen ari diren ereduei jarraitu eta euskal autonomi erkidegora egokitu eta espazio bat sortu.
- Pertsona arteko indarkeriaren aurkako prebentzioa sustatu
- Honen inguruko diskurtsoa positibizatu eta erantzukizuna zein errespetua sustatu
- Euskal gazteek gaur dituzten harreman moten inguruan hausnartzea eta eztabaidatzea.

#### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.** Programaren jarraipena egin.

**B.** Talde lan bat sortu

**C.** Bi hilean behin talde lanarekin dokumentuak landu eta hausnartu

**D.** Jardunaldiak antolatu eta burutu

F. Ebaluazioak; eta aurrera begira zer?

| Hilabetea | Ekintza | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | | | | |
| Otsaila | A | B | | | |
| Martxoa | A | B | C | | |
| Apirila | A | | | | |
| Maiatza | A | | C | | |
| Ekaina | A | | | | |
| Uztaila | A | | C | | |
| Abuztua | A | | | D | |
| Iraila | A | | C | D | |
| Urria | A | | | D | |
| Azaroa | A | | C | | E |
| Abendua | A | | | | E |

**hartzaileak**

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Berdintasunaren inguruan lan egiten duten gazte elkarte zein eragileak.
- Lesbiana, gay, trans eta bisexual elkarteak
- Jendartea orokorrean

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

- Programaren egokitasuna
- Lan taldeak barne bilduko dituen elkarte eta eragile kopurua. Barne lana.
- Landuko diren dokumentu eta ekintza kopurua.
- Jardunaldien antolaketa eta ebaluaketa

## 3.2.2 Berdintasuna elkartegintzaren barruan

**deskribapena**

Emakumea lan mundura “ateratzearekin” batera elkartegintzan, instizuzio publikoetan etab. ari da bere hurratsak ematen eta ingurua astintzen. Baina, nolakoa izan behar du emakumezkoaren papera elkarteen barruan zein mugimendu sozialen barruan? Eta emakumezko gaztearena? Honekin batera, eta aldaketa hauek kontutan edukita, nola erantzuten dute gizonezkoek? Batez ere gizonezko gazteek?

Galdera hauei erantzuna eman nahi zaio eta horretarako dokumentu bat eratuko da urtean zehar. Baita honen inguruan ikertu duten elkarteen berri zein ekarpenak kontutan hartuko dira.

## helburuak

***Orokorra:***

- Elkartegintzan emakumezko gazte zein gizonezko gazteen papera mahai gainean jarri.

***Zehatzak:***

- Gai honen inguruan hausnartu
- Elkarte ezberdinen egoerak ezagutu
- Gai hau jorratzen duten eragile zein elkarteen jarraipena egin.
- Dokumentu bat eratu

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A.-** Gaiari buruz landu dena ikertu.

**B.-** Elkarteei bidaltzeko galdetegi bat prestatu.

**C.-** Galdetegia bidali eta erantzunak jaso.

**D.-** Erantzunak eta teoria lotu dokumentu baten eraketan.

**E.-** Ebaluazioa.

| Hilabetea | Ekintza | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | | | | | |
| Otsaila | A | | | | |
| Martxoa | A | B | | | |
| Apirila | A | B | C | | |
| Maiatza | A | | C | | |
| Ekaina | A | | C | | |
| Uztaila | A | | | D | |
| Abuztua | A | | | D | |
| Iraila | A | | | D | |
| Urria | A | | | D | |
| Azaroa | | | | | E |
| Abendua | | | | | |

## hartzaileak

- EGK
- EGKko kide diren elkarteak
- Berdintasunaren inguruan lan egiten duten gazte elkarte zein eragileak.
- Lesbiana, gay, trans eta bisexual elkarteak
- Jendartea orokorrean

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

- Landu denaren egokitasuna gazteei begira
- Elkarte eta eragileen erantzunak
- Sortutako dokumentua
- Bidean egindako harreman-sarea.

## 3.3 BAKEA: GATAZKEN KUDEAKETA ETA BIOLENTZIA EZA

EGK-ren egoera ekonomikoa dela eta, arlo honetan lan egiteko ezin izango da kontratatu. Hori dela eta, arlo honen lana Batzorde Iraunkorraren ardura eta konpromisoaren arabera izango da.

Hala ere, gai hau zeharka landu egingo da gainontzeko arloetan; hots, kulturartekotasuna eta berdintasun gaietan.

# 4. KOMUNIKAZIOA

## 4.1 Berriz Berri

***Hileroko poster-agenda***

### deskribapena

Urte osoan zehar gazteek egiten dituzten ekintzen berri zein gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekimenen berri emateko EGK-ren posterra da. Hilabetean behin (udarako oporretan salbu) 10-12 albiste sartzen dira Berriz Berrian (ikastaroak, jaialdiak, mobilizazioak, topaketak...). Guztira, 1.800 ale banatzen dira EAEko unibertsitate, institutu, liburutegi, gaztetxe eta elkarteetara.

.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen hitzorduen berri ematea, bai elkartegintzan diharduten gazteei zuzenduta, bai eta gazte ez antolatuentzat ere.

**Zehatzak:**

- Baliabide gutxi dituzten elkarteei (EGKko elkarteak lehenetsita) bere deialdiak zabaltzeko euskarri bat eskaini, bere taldea ikustarazteko tresna bat izan dezaten.
- Elkarteek hala eskatuta, taldeen foileto eta txostenak *enkartatu* (alegia, berriz-berriarekin batera bidali).
- Euskara sustatu (%80 euskaraz).
- Ale bakoitzean gai- aniztasuna eta iturri-aniztasuna bermatu: astialdia, euskara, generoa, osasuna, enplegua, garapenerako lankidetza...

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Albisteen jasotzea**: Hilabeteko bigarren artean EGK-ko elkarteei eta gainerakoei BZBrako deialdia luzatzen zaie, poster-agendan txertatu nahi dituzten berriak bidali ditzaten.

**B)** **Berriz Berria diseinatu**: behin informazioa bilduta, posterraren edukia eta irudia diseinatzen dira.

**C)** **Bidalketa**: eginda dagoenean, bidalketa prestatzen da (*enkarte*ren bat egin behar baldin bada, adibidez).

| hilabetea | | | |
|---|---|---|---|
| urtarrila | a | b | c |
| otsaila | a | b | c |
| martxoa | a | b | c |
| apirila | a | b | c |
| maiatza | a | b | c |
| ekaina | a | b | c |
| uztaila | | | |
| abuztua | | | |
| iraila | a | b | c |
| urria | a | b | c |
| azaroa | a | b | c |
| abendua | a | b | c |

## hartzaileak

- **1.800 harpidedun**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste elkarte batzuk.
  - Institutuak.
  - Zenbait fakultate eta liburutegi.
  - Gazte-bulegoak.
  - webguneko bisitariak (eskegita baitago).

## Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

**Urtean behin**, elkarteek Berriz Berria ebaluatzeko **fitxa** bat jasotzen dute.

## 4.2 Durangoko azoka

***Gazte elkartegintzaren erakuslehio.***

### deskribapena

EGK-k stand bat ordaintzen du Durangoko Azokan eta Kontseilua osatzen duten elkarteei stand-ean parte hartzeko aukera luzatzen die. 2011 EGK hitzordu honetan dagoen zortzigarren urtea izango da.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Gazte elkarteen lana jendartarazi eta ikuskor bihurtu.

**Zehatzak:**

- Materiala banatu/saldu.
- Elkarteen arteko ezagutza sustatu.
- Jendearekin harreman zuzenerako 'leihatila' izan.
- Euskara eta euskal kulturgintza sustatzeko hitzordu batekin bat egin.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Elkarteei proposamena luzatu**: gonbidapena bidaltzen zaie EGK osatzen duten talde guztiei, e-mailez. Behintzat hiru elkartek parte hartu nahi badute (hori da EGK-k stand-a alokatzeko finkatu duen gutxieneko kopurua), lekuaren erreserba egiten da.

**B)** **Elkarteekin bildu eta katalogoa osatu**: parte hartuko duten elkarteekin antolakuntza bilera bat ospatzen da. Talde guztiek eramango duten materialaren berri jasotzen du EGK-k, katalogo orokor bat egiteko. Katalogo hori gero Gerediaga elkarteari bidali behar zaio. Horrez gain, stand-ean erabiltzen da ere.

**C)** **Azokaren ordua:** Standa prestatzeko, standean egoteko eta standa jasotzeko txandak taldeen eta EGKren artean betetzen dira.

**D)** **Ebaluazio bilera:** Behin azoka bukatuta, ebaluazio bilera egiten da, hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak jasotzeko.

| hilabetea | ekintzak | | | |
|---|---|---|---|---|
| urtarrila | a | b | c | d |
| otsaila | a | b | c | d |
| martxoa | a | b | c | |
| apirila | a | b | c | |
| maiatza | a | b | c | |
| ekaina | a | b | c | |
| uztaila | a | b | c | |
| abuztua | a | b | c | |
| iraila | a | | | |
| urria | | b | | |
| azaroa | | | | |
| abendua | c | d | | |

## hartzaileak

- Parte hartu nahi duten EGK-ko elkarteak.
- Durangoko Azokara doazenak.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Azoka bukatu eta egun gutxitara egiten da **ebaluaketa bilera**, parte hartu duten talde guztiekin. Akta batean jasotzen dira ondorioak, hurrengo urtean kontuan hartzeko. Helburuak bete dira

## 4.3 "Elkarteentzat komunikazio erremedioak"

***Gazteak komunikabide arloan trebatzeko ikastaroa***

## deskribapena

Prentsaurrekoak antolatzen eta prentsa-oharrak idazten ikasteko eta irrati eta telebistan elkarrizketak lotzen jakiteko tailer praktikoa da. Goizez eta arratsaldez burutzen da, larunbat batean. 2010ean Bilbon eta Gasteizen burutu ondoren, 2011n Donostian eskainiko da. Zehazki, urtarrilaren 29an.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Elkarteetan aritzen diren lagunei prentsaurrekoak antolatzen eta prentsa-oharrak idazten zein irrati eta telebistan elkarrizketak lotzen jakiteko gutxieneko jakintzak eman.

**Zehatzak:**

- Komunikazioa elkarteentzat helburu estrategikoa dela jabearazi.
- Hedabideetan gazteei buruz ematen den irudia hobetu.
- Komunikazioari begira gazte-elkarteen erronkak antzeman.
- Elkarteen arteko ezagutza sustatu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Elkarteei proposamena luzatu**: webgunearen bitartez, e-mailez eta sare sozialen bitartez deialdia zabaldu.

**B)** **Antolakuntza**: tailer-emaileen artean bilera egin, ariketa-koadernoak prestatu, materiala antolatu.

**C)** **Tailerra eman:** ikastaroa burutu. Hainbat pauso ditu: gosaria, talde-dinamika, tailer-emaileen hitzak, bazkaltzeko pausa, irrati-ariketak, elkarren arteko kontaktua trukatzeko fitxa eta ebaluazio-orria, besteak beste.

| hilabetea | ekintzak | | | |
|---|---|---|---|---|
| urtarrila | | a | b | c |

## hartzaileak

- Parte hartu nahi duten elkarteak.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Ekintzaren amaieran helburuak bete ote diren jakiteko ebaluazio fitxak banatzen dira.

## 4.4 Ahotik At aldizkaria 9. alea

***Gazteria, enplegua eta ekonomia solidarioa***

*(Aurreko aleak)*

### deskribapena

Ahotik At EGK-ren sei-hileroko aldizkaria da. Aurten, diru faltagatik, bakarra egingo da. Zehazki, hurrengo alea, bederatzigarrena, *Gazteria, enplegua eta ekonomia solidarioaren* inguruko 3.jardunaldien ondorioak behar bezala garatu eta zabaldu ahal izateko erabiliko dugu. Arloen arteko elkarlanaz burutuko da: komunikazio teknikaria, bizi-baldintza materialak arloko teknikaria eta Arabako koordinatzailea arituko dira. Beti ere, Batzorde Iraunkorrarekin elkarlana sustatzen saiatuz.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Ekonomia solidarioaren edota alternatiba ekonomikoen gainean gazteen ikuspuntua zein den azaleratu eta alternatiba ezberdinak islatu.
- Proiektuotan gazteriaren parte hartzea eta aktibazioa zein den azaleratu.
- Ekonomia alternatibo edo solidarioen inguruan informazioa eskaini: zertan datzan, kokapena, eta proposamenen arteko loturak.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Gaiaren inguruko informazioa** bildu eta edizioaren estruktura zehaztu.
**B)** Esperientzia ezberdinen inguruko **elkarrizketak lotu** eta informazioaren mamia atera.
**C)** Edizioaren zirriborroa egin, ekarpenak bildu eta testuaren **azken bertsioa adostu**.
**D)** Azken txostenaren **maketazioa eta difusioa** egin.

| Hilabetea | Ekintzak |
|---|---|
| Otsaila | A |
| Martxoa | B |
| Apirila | C |
| Maiatza | D |

## hartzaileak

- EGK-ko enplegu lantaldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK-ko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte taldeak.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Jendartea oro har eta gazteria bereziki.
- Guztira, **900 ale** banatzen dira.

## jarraipena eta ebaluaketaraok irizpideak

- Lantaldearen ebaluaketa bilera, helburu-emaitzen arteko ebaluazioa egiteko.
- Elkarrizketetako esperientzia-parte hartzaile kopurua.
- Jasotako informazioaren kantitate-kalitatea.

## 4.5 Gaztepress prentsa-buletina

***Gazteen kioskoa***

## deskribapena

Hamabostaldiro bidaltzen den buletin digital bat da. Gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen 200-300 bat berri bildu eta sailkatu egiten ditu.

Buletin honek 200-300 berri jasotzen ditu prentsa-idatziko zazpi hedabidetatik:

-Deia.
-Diario de Noticias de Álava.
-Diario de Noticias de Gipuzkoa.
-Berria.
-Gara.
-El Correo español.
-Diario Vasco.
-El País.

Hamar gai-multzo daude:

-Hezkuntza formala/ez formala.
-Elkarteen berri.
-Enplegua.
-Euskararen sustapena.
-Etxebizitza.
-Astialdia.
-Ekimen kulturalak.
-Generoa.
-Garapenerako lankidetza.
-Osasuna.
-Gazteak eta administrazioa.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Hartzaileei gazteei buruz diren berriak eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak gaika sailkatuta helaraztea.

**Zehatzak:**

- *Gazteena eta/edo gazteentzat* irizpidea duen sailkapena bermatu (bakarra modu honetakoa EAEn).
- Gazteen inguruko albisteen eduki-jarraipena egin.
- EGK-ko teknikariei bere arloko lanarekin lotuta egon daitezkeen albisteen berri eman.
- Webguneko 'Gaur Prentsan' atala eguneratua izatea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Albisteez hornitu:** eguneroko lana.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | a |
| otsaila | a |
| martxoa | a |
| apirila | a |
| maiatza | a |
| ekaina | a |
| uztaila | a |
| abuztua | a |
| iraila | a |
| urria | a |
| azaroa | a |
| abendua | a |

## hartzaileak

- GaztePRESSak gaur **egun 600 harpidedun** baino gehiagorengana heltzen da: besteak beste, EGK-ko elkarteak, beste elkarte batzuk, gazte informazio bulegoak, zenbait komunikabide, talde politikoak, Eusko Jaurlaritza, Aldundietako eta udaletxetako zenbait teknikari daude hartzaileen artean.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte amaieran ebaluazio-fitxa bidaliko zaie EGK-ko elkarteei eta gazteria-teknikariei.

## 4.6 EGK Digitala

***Hiru-hileroko buletina***

## deskribapena

Hiru hilero EGKren jardueraren berri ematen duen buletina digitala da egkDIGITALA. 2010era arte hilerokoa izango da, baina aurrerantzean hiru-hilerokoa, baliabide-falta dela eta (langile falta, zehazki). Kontseiluak epe horretan zehar egin duenaren berri ematen du buletinak, hurrengo ezaugarriekin:

- Bost-zortzi orrialde izaten ditu.
- Berriak formatu-laburrean ematen dira, buletin arina, erakargarria eta irakurterraza izan dadin. Irudiak gehitzen ditu.
- Elebiduna da.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Buletin honen xede nagusia EGK-ren lana ezagutaraztea da, eta zehazkiago, kanpora-begira hain agerikoa ez den barne-lanaren berri ematea ere. Horretaz gain, beste helburu bat ere badu buletin honek: hartzaileekin harreman iraunkor eta erregularra izatea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Albisteak jaso:** hiru hilekoa bukatu baino hiru aste lehenago, egindako lanaren berri emateko eskatzen die Komunikazio teknikariak beste teknikari guztiei.

**B)** **Buletina idatzi eta maketatu**: behin informazio osoa jasota, Komunikazio teknikariak buletina idatzi egiten du (euskaraz eta gaztelaniaz) eta maketatu egiten du.

**C)** **Zabaldu:** Behin osatuta, webgunera igotzen da, sare sozialen bidez zabaldu eta webmail bitartez harpidedunei bidali.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| urtarrila | |
| otsaila | |
| martxoa | - a b c |
| apirila | |
| maiatza | |
| ekaina | - a b c |
| uztaila | |
| abuztua | |
| iraila | - a b c |
| urria | |
| azaroa | |
| abendua | - a b c |

## hartzaileak

300 postontzi digitaletara heltzen da: zehazki gazte elkarte, gazte bulego, institutu eta administrazioko gazteria arlotara iristen da.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte amaieran ebaluazio-fitxa bidaliko zaie EGK-ko elkarteei eta gazteria-teknikariei.

## 4.7 Gazte Borraste

***Tas Tas irratian irratsaioa.***

### deskribapena

EGK irratsaio propio bat egiten hasi zen 2010eko irailan, Tas Tas irrati librean. FMan Bilbon entzun daiteke (97FM), eta Internetetik ere entzun daiteke, Euskadi osoan. Horrez gain, e-mail eta sare sozialen bidez ere zabaltzen da. Bizkaiko elkarteez gain, Araba eta Gipuzkoako elkarteei ere parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaie, eta beren deialdiak zabaltzen dira.

Komunikazio teknikaria eta Bizkaiko Koordinatzailea arduratzen dira irratsaioaz. Dena den, gainerako teknikariek ere parte hartzen dute. Parte hartu dute, esaterako, Presidenteak, Bizi-baldintza materialak arloko teknikariak, Arlo Teknikoaren Koordinatzaileak eta Kulturartekotasun teknikariak.

Elkarteei dagokienez, hauexek izan dira orain arteko irratsaioak eta parte-hartzaileak:

- Aisialdia (Bosko Federazioa eta Itakak hartu dute parte; horrez gain, Gazte Berdeak-ek iritzi zutabe bat egin dute).
- Desazkundea. Desazkunde taldeak parte hartu du, bai eta REAS sareak (iritzi zutabea).
- Sahara gazte begirada batetik. Ya Lah Gazte ekimenak eta gazte saharar batek paret hatu dute, hala nola Saharako kanpamenduetan egondako kazetari gazte batek.
- Euskal Kulturgintza. Gotzon Barandiaran eta Igor Elortzari elkarrizketak.
- Gazteak, enplegua eta ekonomia solidarioa EGK-ren jardunaldiak zabaltzeko programa. Araban lan egiten duen Bizi-baldintza materialak arloko teknikariak parte hartu du. Bestalde, Arabako Gazteok XXI elkarteak iritzi zutabea egin du.
- Kanpo Zorra. *ILP ekimena jarraitzeko taldea* egon dira estudioetan.
- Kulturartekotasuna. EGK-k Donostian burututako Kulturartekotasun jardunaldiak jorratu dira irratsaioan, hizlarietako batekin eta antolatzailearekin.

## helburuak

**Orokorrak**:

- EGK-ren berri ematea bitartekaritzarik gabe.
- EGK-ko elkarteei komunikazio-tresna bat eskaini, bitartekaritzarik gabea.
- EGK-koak ez diren beste elkarte eta mugimenduen ahotsa ere entzunarazi.
- Elkarteak komunikabideetara gerturatu. Mikroari beldurra galduarazi.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Ekoizpen lanak**: komunikazio teknikariak eta Bizkaiko koordinatzaileak egiten dute. Gaiak finkatu eta gero, elkarrizketak edo solasaldiak lotzen dituzte.
**B)** **Gidoia**: behin produkzio-lanak eginda, gidoia prestatzen da.
**C)** **Irratsaioa:** grabatu egiten da.
**D)** **Zabalpena**: webgunera igotzen da, bai eta sare sozialen bidez zabaldu ere.

| hilabetea | ekintzak | | | |
|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | ab | cd | ab | cd |
| Otsaila | ab | cd | ab | cd |
| Martxoa | ab | cd | ab | cd |
| Apirila | ab | cd | ab | cd |
| Maiatza | ab | cd | ab | cd |
| Ekaina | ab | cd | ab | cd |
| Uztaila | ab | cd | ab | cd |
| Abuztua | ab | cd | ab | cd |
| Iraila | ab | cd | ab | cd |
| Urria | ab | cd | ab | cd |
| Azaroa | ab | cd | ab | cd |
| Abendua | ab | cd | ab | cd |

## hartzaileak

- Tas Taseko entzuleak.
- EGK-ko elkarteak (barne-zabalpenaren bidez).
- Webgunean sartzen direnak.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hiru hilean behin parte-hartzaileen zerrendak osatzen dituzte saioaren arduradunek, aniztasuna bermatu dela konprobatzeko. Bestalde, entzuleei gazteborraste@tas-tas.org helbidera bere ekarpen eta ebaluaketak bidaltzeko eskatzen zaie irratsaio guztietan.

## 4.8 Kazetariekin topaketak

### deskribapena

EAEko kazetariei EGK gerturatzeko nahiarekin, bai eta EGK kazetariengana gerturatzeko helburuarekin ere, Komunikazio arloak topaketa bat antolatuko du. Saioan, bata bestea ezagutzera bideratzeaz gain, EGKren 25. urteurrenaren berri emateko erabiliko da. Bestalde, 'Gazteak eta Komunikabideak' lan-ildoa jorratzeko baliatuko da, komunikabideetan gazteen irudia hobetze aldera. Horretarako, komunikabideek gazteei buruz ematen duten irudia aztertuz EGK-k idatzitako txostena erabiliko da, bai eta 2010ean idatzitako Ahotik At aldizkariaren zortzigarren alea (Gazteak eta Komunikabideak izenburukoa). Horrez gain, saioan komunikazio-kanpaina zehatz bat sakonki aztertuko da, prentsa-gosari formatuarekin. Komunikazio kanpaina hori ikasturtean zehar sortutako beharren arabera zehaztuko da.

### helburuak

**Orokorrak**:

- EGK-k kazetarien artean bere burua ezagutzera ematea.
- EGK-k kazetariak ezagutzea.

**Zehatzak**:.

- EGKren 25. urteurrenaren berri ematea.
- 'Gazteak eta Komunikabideak' lan ildoa jorratzen jarraitzea, komunikabideetan gazteen irudia hobetze aldera.
- Komunikazio kanpaina bat sakonki aztertzea, prentsa-gosari formatuan.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**A)** **Topaketa diseinatu.** Topaketaren edukiak, parte-hartzaileak, materialak eta (horien arabera) ebaluazio-irizpideak zeintzuk izango diren erabaki, bai eta material horiek idatzi eta osatu.

**B)** **Topaketaren deialdia egin**. Behin dena zehaztuta, kazetariei gonbidapena luzatuko zaie, banan banako kontaktu bitartez.

**C)** **Topaketa.** Astean zehar izango da, goiz batean. Bi orduko iraupena izango du, gutxi gora behera.

| hilabetea | ekintzak |
|---|---|
| apirila | a |
| maiatza | b |
| ekaina | c |

## hartzaileak

- Parte hartzen duten kazetariak.
- EGK bera.
- Komunikazio-kanpaina zehatzaren hartzaileak (irakurle, entzule, ikusleak).

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Topaketaren diseinuaren araberako ebaluazio-irizpideak finkatuko dira eta, behin topaketa burututa, ebaluazio-irizpide horien araberako txostena idatziko da.

# 4.9 Web orrialdea eta sare-sozialen kudeaketa

## deskribapena

Komunikazio arloa www.egk.org ataria eguneratzeaz arduratzen da, bai eta Facebook, Tuenti eta Twitterren dituen profilak kudeatzeaz ere.

## helburuak

**Orokorrak**:

- EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea.
- EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarteen direktorio gaurkotu bat mantentzea.
- EGK-ren irudia zaintzea.
- Hori guztia sare sozialen bidez gizarteratzea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**Webgunea gaurkotu eta sare sozialak kudeatu.** Astero birritan edo hirutan burutzen da.

| hilabetea | ekintzak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| x. astea | a | | a | | a |

## hartzaileak

- Webguneko bisitariak.
- Sare-sozialetan EGK-k dituen lagunak eta jarraitzaileak.

## jarraipena eta ebaluaketa irizpideak

Kualitatiboki, ez dago ebaluazio-irizpiderik. Kuantitatiboki, bisita kopurua, bisitatutako orrialde kopurua, atarian igarotako denbora, harpidetza eta laguntasun eskaerak eta utzitako iruzkin kopurua baliatzen dira, besteak beste.

## 4.10 Komunikazio kanpainak

### deskribapena

EGKren ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin.

- Prentsaurrekoak antolatu.
- Prentsa Oharrak idatzi.
- Iritzi-artikuluak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzeko kudeatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- Salaketa oharrak bidali, lan-istripuak salatzeko protokoloari dagokionez.

### helburuak

**Orokorrak**:

- EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Kanpaina finko batzuk dauden arren (Pobreziaren aurkako egunaren komunikazio kanpaina, esaterako), orokorrean ikasturtean zehar sortutako beharren arabera finkatzen dira epeak.

### hartzaileak

- Hedabideen irakurle, entzule eta ikusleak.

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

Etengabeko jarraipen-txostena osatzen da, agerpen guztiak eta agerpenen oharrak jasotzeko.

## 4.11 Kolaborazioen kudeaketa

**deskribapena**

EGK-k zenbait komunikabideekin kolaboratzen du:

- Euskonews Gaztea Eusko Ikaskuntzako astekari elektronikorako artikulu bat idazten du hilero.
- Euskalerriko Eskautak federazioko Goitibera aldizkarirako artikulu bat idazten du hiru-hilean behin, gutxi gora behera (Gazteriaren Kontseiluak, edo Kontseiluko elkarteren batek, EGK-k berak bideratuta).
- EGK-k Bizkaia Irratiko Lau Haizetara irratsaioaren solasaldian parte hartzen du, hilean behin.
- Arabako Gazte Pastoraltzaren Gazteok XXI elkarteak artikuluren bat eskatzen dio EGKri urtean birritan, gutxi gora behera.

**helburuak**

**Orokorrak**:

- EGKren jarduera eta diskurtsoa hedabideen bitartez gizarteratzea.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

| hilabetea | ekintza |
|---|---|
| urtarrila | Euskonews / Bizkaia irratia / Gazteok XXI |
| otsaila | Euskonews / Bizkaia irratia / Goitibera |
| martxoa | Euskonews / Bizkaia irratia |
| apirila | Euskonews / Bizkaia irratia |
| maiatza | Euskonews / Bizkaia irratia / Goitibera |
| ekaina | Euskonews / Bizkaia irratia / Gazteok XXI |
| uztaila | Euskonews / Bizkaia irratia |
| abuztua | |
| iraila | Euskonews / Bizkaia irratia / Goitibera |
| urria | Euskonews / Bizkaia irratia |
| azaroa | Euskonews / Bizkaia irratia |
| abendua | Euskonews / Bizkaia irratia |

## hartzaileak

Hedabide horien irakurle, entzule eta ikusleak.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Agerpen guztiak etengabeko-jarraipen txostenean jasotzen dira.

# 4.12 Paz con dignidad elkartearekin elkarlana

## deskribapena

Paz con dignidad elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Palestinako auziaren trataera mediatikoa aztertzeko word-kafeak eta mintegiak antolatuko ditu. EGK-k parte hartuko du: gazte ikuspegia txertatzen, gazte elkarteek parte hartu dezaten gonbidapena eginez, talde batzuk besteekin kontaktuan jartzen, deialdia eta emaitzak zabaltzen, eta EGK-ren word-kafearen esperientzia Paz con dignidad elkarteari azaltzen.

## helburuak

**Orokorrak**:

- EGK Palestinako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sareen kidea den aldetik, Palestinar auziaren inguruko bere diskurtsoa mamitu eta gizarteratu.
- Ekimenean gazte ikuspegia txertatu.
- EGK-ko elkarteek eta beste gazte-mugimenduek parte hartu dezaten saiatu.
- Talde batzuk besteekin kontaktuan jartzen lagundu (sareak josi).
- Deialdia eta emaitzak zabaldu (elkartegintzari EGK-ko komunikazio-euskarriak eskainiz).

## ekintzak eta epeak (kronograma)

| hilabetea | ekintza |
|---|---|
| urtarrila | Paz con dignidad-ekin ideia-zaparrada. |
| otsaila | Palestinarena uzia jorratzen duten eragile sozialekin bilera |
| martxoa | Word-kafeen diseinua |
| apirila | Word-kafeen diseinua |
| maiatza | |
| ekaina | |
| uztaila | |
| abuztua | |
| iraila | Ekimenaren deialdia zabaldu |
| urria | Ekimena |
| azaroa | Emaitzen zabaltzea |
| abendua | Ebaluazioa |

## hartzaileak

- EGK bera.
- EGK-ko elkarteak.
- Beste elkarte batzuk.
- Kazetariak.
- Palestinar Herria.
- Gizartea Orokorrean.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Bakea eta Duintasuna elkartearekin finkatzeke.

# 5. LURRALDETASUNA

## 5.1 Gazteria Politiken EAEko mapa: Gaztelink

### deskribapena

Gaztelink, www.gaztelink.org , Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2010 urteko ekainean martxan jarritako proiektua da. Gazte eragileen arteko harreman faltaz jabeturik sare lanean lagundu eta indartzeko arrazoiei erantzun nahian sorturiko gune edo plaza birtuala da.

Zentzu horretan, gazte teknikari, gazte elkarte, gazteei zerbitzuak eskaintzen dizkien elkarte edo norbanako gazteei irekia dagoen gunea da. Norberak bere profila ireki, sortu eta elikatzean oinarritzen da, ahalik eta horizontalena izan eta kudeaketa askeena izateko asmoz egina.

Bertan, profila sortzen duen edonork zintzilika ditzake antolaturiko ekitaldi, hitzaldi, zein era guztietako deialdiak. Horrekin batera, foroen bidez eztabaida gaiak sortu eta iritziak elkar banatzeko aukera eskaintzen du. Bestetik, blogak sortu edota aurretik daudenekin uztartzeko aukera ematen du. Finean, aukera desberdinak eskaintzen ditu, denak, gazteen inguruan lanean dabilen eragile ororen lan, ideia, duda… besteekin konpartitu eta indar berrituta ateratzeko helburuarekin.

Gune honen indarra, norberak modu aske batetan antolatzen dituen gauzak zintzilikatu eta publikatu ditzakeela da eta zentzu beretik bere ahuldade nagusia ere bada. Kudeatzaile batek ekitaldiak zintzilikatzen ez egotean, hau bertako kide direnak elikatzen ez badute, bakarrik eroriko den tresna bihurtzen da Gaztelink. Horiek dira txanponaren bi aldeak. Hori dela eta aurtengo urteari EGK-k jartzen dituen helburuak nagusiki bi dira: dauden erabiltzaileak bermatzea eta bestetik sektore berrietara iristea.

Bide horretan 2011ko urtean tresnaren erabilera bermatu nahi da jada erabiltzaile diren horien artean. Jarrai dezatela tresna erabiltzen edota egunerokoan ordenagailuan daudela bertara sartzeko ohituraz.

Bestetik, webaren kudeaketa eta dinamizazioa bermatuko da, hau da, egin daitezkeen hobekuntzak burutzen, altan emandako erabiltzaile berriei harrera egiten eta EGK elkarlanean ari den eragileen artean erabilera sustatzen.

Azkenik jende berriari gerturatu nahi zaio tresna. Horrela, gazteria esparruetan diharduten sare, talde, plataforma zein administraziora gerturatzen jarraitzeko asmoa dago Gaztelink ezagutarazi eta bertako kide egitea animatuz.

## helburuak

**Orokorrak:**

- Gaztelink erabilera bultzatu.
- Gaztelinken mantenua eta webaren dinamizazioa.
- Gaztelinken difusioa.

**Zehatzak:**

- EAEko gazte eragileak burutzen dituzten ekimenen berri izan eta horien hedapena eta gizarteratze lana Gaztelinken bidez egitea sustatu.
- EGKko barne sarearen lana Gaztelink plataformara bideratu.
- Jasotako informazio berria etengabean sistematizatu.
- Agertzen diren baliabide informatiko berriak aplikatu.
- Informazio eta tresnaren garrantzia azpimarratu erabilera suspertzeko.
- Tresna ezagutarazi, elkarte, talde eta eragile desberdinekin bilduz.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**a)** Lurraldeko Administrazio desberdinetako errealitateei hurbilketa eta koordinazioa.

**b)** EGKko elkarteekin koordinazioa.

**d)** Beste eragileekiko hurbilketa eta koordinazioa.

**e)** Euskarri informatikoaren etengabeko errealitatearekiko egokitzapena

**f)** Baliabide informatiko berriak herramintan ezarri

| **Hilabetea** | **Ekintza** | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | B | D | E | |
| Otsaila | A | B | D | E | |
| Martxoa | A | B | D | E | |
| Apirila | A | B | D | E | |
| Maiatza | A | B | D | E | |
| Ekaina | A | B | D | E | |
| Uztaila | A | B | D | E | |
| Abuztua | A | B | D | E | |
| Iraila | A | B | D | E | F |
| Urria | A | B | D | E | F |
| Azaroa | A | B | D | E | F |
| Abendua | A | B | D | E | F |

## hartzaileak

- EGKko elkarteak
- EAEko beste elkarteak.
- Administraziotako gazteria sailak.
- Gazte ez elkartuak

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egindako bilerak
- Ezagututako eragile berriak.

Euskarri informatikoaren erabilera maila: Sarrera kantitatea, informazio jarioa, erabiltzailea kopurua…

## deskribapena

Gazteriaren kontseiluak EAEko hiru lurraldeetan du bere lan eremua: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hiru hauen arteko elkarlan-lantaldea bakoitzak bere lurradean daraman lana bateratu eta orekatzeko ezinbesteko gunea da. Lantaldea hilabetero biltzen da lurralde bakoitzean ematen diren dinamikak besteekin konpartitu, trasladatu beste lurraldeenak aberastuz eta kohesionatuz. Koordinazio esparru honetatik, EGKko proiektuak lurralde bakoitzari hobeto egokitzeko aukera sortzen da eta ondorioz ekimen bera hobetzen eta indartzen da.

Lurralde zehatz batean EGK-k duen erreferentzia sarea eta lanketa zehatz bat beste lurralde batera trasladatzean, kontseiluak duen erreferentziatalsuna zabaltzen da. Era berean, gizarte eragileetako sareak sortzen eta indarzten dira, azkenean lurralde historikoetatik haratagoko mailara igotzen direlarik. Esparru honek gizarte eragileak bultzatzen dituzten interes orokorreko gai edo egunak tokian tokiko esparrutik erkidego mailara pasatzea ahalbidetzen du.

Gune honen bidez EGK-k dituen lan esparru ezberdinetan irudi eta estrategia berdinak erabiltzen ditu. Horrela, hiru lurraldetan gauzatuko den metodologia edo lana egiteko erak patroi berari erantzungo diote. Azken finean, erakundearen irudia bateratua eskaintzen da gune zein eragile guztiekin.

## helburuak

- Lurralde ikuspegiko lana bateratu eta indartu
- EGKko lan arloetako proiektuetan lurralde historikoekiko eta bakoitzaren errealitatearen ezagutza erabili hauen arrakasta bermatzeko.
- Lurralde mailan lan egiten duten era guztietako eragileentzako erreferentziazko eragilea izan.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**a)** Lurraldeko koordinazio bilerak: hilean behin, hiru lurraldetako koordinatzaileek bilerak burutzen dituzte, lurralde ezberdinetan bilera bakoitzeko. Eremu bakoitzeko koordinazio lanaren berri eman, lurraldeko errealitatearen berri izan, lanerako irizpideak zehaztu…..

**b)** Lan arloetako teknikoekin elkarlana.

**d)** Jarraipen txostena: Hilabeteko jarraipen eta informazio txostena egin.

**e)** Urteko plangintza eta ebaluaketa memoria egin.

| **Hilabetea** | **Ekintza** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | B | D | E |
| Otsaila | A | B | D | E |
| Martxoa | A | B | D | E |
| Apirila | A | B | D | E |
| Maiatza | A | B | D | E |
| Ekaina | A | B | D | E |
| Uztaila | | | D | E |
| Abuztua | | | D | E |
| Iraila | A | B | D | E |
| Urria | A | B | D | E |
| Azaroa | A | B | D | E |
| Abendua | A | B | D | E |

### hartzaileak

- EGKko kide diren elkarteak
- Euskal Autonomi Erkidegoko beste eragileak

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hiru lurraldeko koordinatzaileek burututako bilera kopurua

## 5.2 EGKko elkarteekiko lana

### deskribapena

Egun, 55 elkartek osatzen dute EGKk duen kidegoa. Hori guztien artean, aniztasuna da nagusi: ekologistak, alderdi politikoetako gazteriak, kulturartekotasuna, gutxiengo kulturak, astialdi taldeak eta eskolak, kristau gazteak, ikasleak, ezintasun fisikodunak, bakezaleak eta antimilitaristak. Bakoitzak bere esparrutik, eskeintzeko asmoarekin parte hartzen du EGKn, horrela bi norabidezko erantzunkizuna sortuz.

Erantzunkizun horrek behar batzuk sortzen ditu, bai elkarteekiko bai EGKrekiko. EGKko lurraldetasuna arloari dagokionez, elkarte horien gainean, beharrak, laguntza,

aholkularitza, informazioa, sare lanean sartzea, elkarlanera bultzatzea ditu helburu. Era berean, barneko sare lana bultzatu: elkarteen arteko harremana eta elkarlana bultzatu, suspertu eta indartu.

Baina guzti honetarako elkarte bakoitzaren egiturak eta funtzionamenduak bermatuta egon behar du. Elkarteen parte hartzea beste gauzetan ez da posible euren lehentasunak asetuta ez badituzte, euren gutxiengo funtzionamendua bermatuta ez badute.

Hein haundi batean, horretan datza lurraldeko koordinatzailearen lana: elkarteen egoerari so egitea, euren beharrak eta kexak ezagutu, behar duten guztirako laguntza eskaintzeko. Baita EGKren baliabideak eskaini, sortzen diren lantaldeetan parte hartzea bultzatu; beste elkarteekin harremanetan jarri elkarlana bultzatuz eta EGKn parte hartze aktiboa eragin, elkarte bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, noski.

## helburuak

- EGK eta bere elkarteak indartu.
- Harremanean sakondu.
- Erantzunkidetasuna sustatu.
- Bideratzaileak izan.
- Barne sarea indartu.
- Administrazioekiko bitartekari lana burutu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**a)** Elkarteekin harremanetan jarri. Banan banako bileretarako deialdia zabaldu. Email eta telefonozko deiak egin, elkarrizketa zehaztu arte. Euren lokaletara bixita, hurbiltasuna erakusteko. Euren egoerari jarraipena egin, dituzten beharrak, kexak, plangintza...ezagutu. EGKren komunikaziorako eta bestelako baliabideak eskaini.
**b)** Elkarteen artean EGKren berriak zabaldu. EGKtik sortzen diren egitasmoei, lan taldeei, publikazioei, jarduerei hedapena eman elkarteen artean, batez ere emailez. Baten batek besteak baino interesa handiagoa eduki balezake, bereziki berarengana jo.

**c)** Beste elkarteen berriak/jarduerak zabaldu EGKko elkarteen artean. EGKtik kanpo datozkigun beste eragileen jardueren berriak zabaldu gure elkarteen artean, emailez edo web-orriaren bidez.

**d)** Elkarteen proposamenak jaso. Bai banan banako bileretan, bai urtean zehar emailez edo telefonoz. Behin jasota, elkarrekin garatuko genuke zer egin, zelan, noiz, nor(tzue)i.

**e)** Elkarteei proposamenak bideratu. Bai EGKrekin elkarlanean, beste elkarteekin edota zuzenean elkarte horri berezko proposamena bideratu.

**f)** Sare lana bultzatu. Elkarteen plangintzak ezagutuz gero, antzeko helburuak, jarduerak edo interesak eduki litzaketen elkarteei elkarlanerako proposamena zabaldu.

| **Hilabetea** | **Ekintza** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | B | C | D | E | F |
| Otsaila | A | B | C | D | E | F |
| Martxoa | A | B | C | D | E | F |
| Apirila | A | B | C | D | E | F |
| Maiatza | A | B | C | D | E | F |
| Ekaina | A | B | C | D | E | F |
| Uztaila | A | B | C | D | E | F |
| Abuztua | A | B | C | D | E | F |
| Iraila | A | B | C | D | E | F |
| Urria | A | B | C | D | E | F |
| Azaroa | A | B | C | D | E | F |
| Abendua | A | B | C | D | E | F |

## hartzaileak

EAEko 56 elkarte (Ikus III. eranskina)

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

- Urtean bildutako elkarteak
- EGKko jardueretan parte hartu duten elkarte kopurua.
- Elkarte bakoitzarekin sortutako kontaktuak.
- Sortutako sareak-harremanak elkarteen artean.
- Elkarteengandik jasotako elkarlanerako proposamenak.
- Elkarteei proposatutako elkarlanak.

## 5.3 EAEko elkarte sareak, eragileak

**deskribapena**

Gazteak gizartearen islada diren heinean, aniztasunez batzen dira, horregatik edonon eta edonola topa daitezke: formalki elkartuak, ez elkartuak, ez formalki elkartuak, asanbladetan, gaztetxeetan, kirol elkarteetan, kultur elkarteetan, ezertan. EGK gazte guztiekin saiatzen da harremanetan egoten. Batzuekin errazagoa da, beste batzuekin zailagoa. Hala ere, proiektuak garatzeko eta burutzeko momentuan buruan kontutan hartzen dira beti.

EGKtik kanpoko elkarteetako gazteekin topo egiteko elkarte horiekin harremanetan egotea ezinbestekoa da. Normalean, elkarte bakoitzak bere lanak burutzen ditu, eta normala denez, lehentasunezkotzat jotzen ditu euren jarduerak. Hala ere, sarritan, elkarte eta gizarte eragile ezberdinak plataformetan biltzen dira euren aldarrikapenak bat eginez, indarrak batuaz.

Holako topaguneak oso garrantzitsuak dira EGKrentzako, gizarte mugimenduetako errealitatearen termometro moduan erabiltzen baititu: EGKtik kanpo dauden elkarteen egoeraren islada direlako. Hortik, harremanak ateratzeaz aparte, elkarte horien aldaketen eta egoeraren inguruko berriak jasotzen ditu. Eta ateratako kontaktuei esker, beste eragileekin elkarlana eta sare lana bultzatzea posible du EGKk. Baita euren sare propioak ezagutu eta, amarauna zabaltzea ere

Beraz, EGKren plan estrategikotik urrun ez badaude, urtean zehar sortuko diren ekimenetan parte hartuko da.

Horrez gain, harreman hauek ez dira plataformetara mugatzen. Beste era askotara burutzen dira harremanen indartze edo sareen indartze hau. Era horretan, elkarteei beste era bateko euskarriak eskaintzen zaizkie hauen ahotsa ozenagoa eta zabalagoa izan dadin. Hor dago Berriz Berria, beraiek antolatzera doazen ekitaldi, jarduera edo bestelako ekintzen berri ematen duena. Edota, sarri taldeen artean, batekin eta besterekin biltzearen ondorioz lortzen den informazioa baliatuz, burutzen den bitartekaritza lana. Edota, plataformetan askotan burutzen den dinamizazio, akten idazketa eta berbidalketa lanak etab. Askotan nabaritzen ez diren lanak izan arren, gauzapen argia ez dutelako, behar beharrezkoak dira azkenean emaitzak onak izaten laguntzeko.

## helburuak

- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ ezagutu.
- EGKren erreferentzia sarea zabaldu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin elkarlana bultzatu eta sustatu.
- Finkatutako dinamikak indartu.
- Sare lana bultzatu eta sustatu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

Aurreikusten direnak, edo identifikatuta daudenak, hurrengoak dira:

**a)** Pobrezia 0 Lantaldeak
**b)** Boluntariotza Lantaldeak. Lurralde bakoitzeko boluntariotza agentziekin elkarlana sustatu eta bultzatu
**d)** Euskal Herria Palestina Sarea eta lurraldeko plataformak
**e)** Kalea Guztiona da
**f)** ILP
**g)** Bilbogune
**i)** Zaharraz Harro
**j)** Gasteizko MENA taldeari sostengu plataforma
**k)** Sareginez

Plataformek, nahiz eta egun batean edo batzuetan kokatu ekintza nagusia, koordinaziozko lan potoloa eskatzen dute aurreko hilabeteetan behintzat. Beraz, elkarteen topaguneetan parte hartzeak denbora gutxian maiztasun handiko bilera dinamika, materialak sortzeko edota erosteko aurrekontu bereziak eskatzen ditu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Otsaila | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Martxoa | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Apirila | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Maiatza | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Ekaina | A | B | D | E | F | G | I | J | K |
| Uztaila | A | B | D | E | F | G | | | K |
| Abuztua | | | | | | | | | |
| Iraila | A | B | D | E | F | G | I | | K |
| Urria | A | B | D | E | F | G | | | K |
| Azaroa | A | B | D | E | F | G | | | K |
| Abendua | A | B | D | E | F | G | | | K |

Bestalde, hemen aurkezten dugun kronograman, identifikatuta dauden eta haiekin lanean jardun denn sareekin burututako ekintzak azaltzen dira, baina 2010 urteko egoera, koiuntura eta beste arrazoi gehiagoren arabera beste plataforma, talde zein egiturak sortzeko aukerak beti daude. EGKk hauetan parte hartuko du baldin eta bere izaerarekin bat baldin badatoz.. Horregatik, aurreko ateak ixten ez diren bezela, kasu honetan ere ekimen berrietara irekita dago kontseilua eta hauek agertu edo sortzean erabakiko da haietan inplikatu edo ez. Honek egunerokotasunean elkarteen gainean egon eta hauekin harremanetan egotea eskatzen du informazio bilketan, errealitatearen ezagutzan jarraitasunezko lan bat eginaz.

## hartzaileak

- EAEko gazte elkarte eta sareak
- Lurraldeetako boluntariotza agentziak
- Lurraldeko gizarte mugimenduak
- Alderdi politiko eta langileen sindikatuak

Egun, 348 eragile sozialekin dago EGK, 2011eko urte amaieran kopuru zehatza eguneratuko da.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Parte hartutako plataformetan.
- Egondako eragile sozialekin.
- Sortutako topagune/ sare berriak.

## 5.4 EAEko administrazioetako gazteria sailekin lana

### deskribapena

Gazte elkartegintza munduarekin lan egiteaz gain, administrazioekin garatzen den lana EGKren egitekoren nagusienetariko bat da. Zergatik?

Alde batetik, EGKren Legeak azterlanak eta txostenak eginez eta bestelako bideez baliatuz, Administrazioari gazteen arazoekin eta interesekin lotura duten neurriak proposatzeko eta iradokizunak egiteko lana izendatzen diolako. Baita, lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Euskadiko Gazteriaren Kontseilua onartutako solaskide izatea onartzen duelako, gazteriari dagozkion arazoen inguruko aginpideak Sailaren bidez emateko ahalmena aitortuaz (Zioen adierazpena, Maiatzaren 27ko 6/1986 LEGEA).

Kontseiluaren estiloa eragile guztiekin elkarlanean aritzea ere bada. Eta gazteria politiketan, eragile erabakitzaile bat badago, hori administrazioa da. Administrazioak baliabide ekonomiko handienak dituelako eta gazteria politiken inguruan eragile sortzaile eta bultzatzaile garrantzitsuena delako. Beraz, harreman egonkorra, ona, naturala eta jariokorra edozein administraziorekin ezinbestekotzat jotzen du EGKk: bai herri zein lurralde mailakoak. Azkenean elkarlanaren, lankidetzaren beharra daukagu bi eragileok. EGKk administrazioa behar du, eta alderantziz ere, Administrazioek EGK behar du. Behar horietatik abiatuz, elkarlanerako esparruak sortzea eta bultzatzea komeni da. Honek bakarrik ekarri ahal dizkie onurak bi eragileei.

